

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmenta nominalak %1,9 gehitu ziren 2016ko lehen hiruhilekoan

Gasolindegirik gabe, %3,3 nominal gehitu

Eustaten datuen arabera, 2016ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %1,9 gehitu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, %3,3 gehitu urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,2 nominala gehitu, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. I/2016

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	1,9	0,2	1,9	0,6
Araba/Álava	-0,5	-0,2	1,7	0,6
Bizkaia	3,3	0,0	2,2	0,1
Gipuzkoa	0,7	0,9	1,5	1,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	4,7	0,9	3,3	0,5
Elikagaietan espezializatuta	0,3	-0,2	-2,3	-0,9
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	7,0	1,8	6,0	2,0
Beste produktuak	2,3	0,4	0,9	0,6
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	4,3	0,2	0,8	0,2
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	5,5	1,0	5,7	0,4
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-0,4	-0,2	1,4	1,0
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-5,2	0,1	-4,9	0,3
Automoziorako erregaia	-13,2	-2,6	-0,2	-0,3
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	3,3	0,6	1,9	0,6
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	1,0	0,3		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien salmentak %4,7 gehitu ziren 2016ko lehen hiruhilekoan; gainerako produktuetan %2,3 gehitu eta automobilgintzarako erregaian %13,2 jaitsi, beti ere 2015eko aldi beraren aldean eta nominalki.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %0,3 gehitu; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %7,0. Gainerako produktuen merkataritzan, zeinu ezberdinak. Etxeko ekipamenduan espezializatuan %5,5eko gehikuntza; pertsonaren

ekipamenduan espezializatuan %4,3; gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %-5,2; kontsumo beste ondasunetan espezializatuan %-0,4.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, nominalki: Bizkaian %3,3ko gehikuntza, Gipuzkoan %0,7; Araban %-0,5.


Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %1,9 gehitu 2016ko lehen hiruhilekoan

Txikizkako salmentek —gasolindegia sartu gabe- %1,9ko gehikuntza erreala aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2016ko lehen hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealean %0,6ko gehikuntza 2015eko laugarren hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Elikagaien txikizkakoan %3,3ko gehikuntza erreala, gainerako produktuetan %0,9, 2015eko hiruhileko beraren aldean; automobilgintzarako erregai-salmentetan %0,2ko jaitsiera.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-2,3 dugu espezializatuan; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %+6,0. Gainerako produktuen merkataritzan, gehikuntzak sektore guztietan, salbuespen batekin, gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan (%-4,9). Etxeko ekipamenduan espezializatuan %5,7ko gehikuntza;

kontsumo beste ondasunetan espezializatuan %1,4; pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %0,8.

Hiru lurraldeetan gehikuntzak salmentetan termino errealean, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean: Bizkaian %2,2, Araban %1,7, Gipuzkoan %1,5.

Euskal AE osoan, 2015eko laugarren hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,3 gehitu 2016ko lehen hiruhilekoan, %1,0 aurreko urtearen aldean.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEKo txikizkako merkataritzaren indizearen (BMI) gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo txikizkako merkataritzaren indizearen (BMI) gaineko datu-bankua